



Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Emakumeen zahartzaroa euskal literaturan

**Gerontologia feminista lantzeko proposamen
didaktikoa**

Master Amaierako Lana

Ikaslea: Ane Gil Ochagavía

Tutorea: Juan Karlos Lopez-Mugartza

Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasleentzat (2022-2023)

Emakumeen zahartzaroa literaturan

Ikaslea

Ane Gil Ochagavía

Izenburua

Emakumeen zahartzaroa euskal literaturan

Masterra

Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan

Ikastegia

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Tutorea

Juan Karlos Lopez-Mugartza

Saila

Giza eta Hezkuntza Zientziak Saila

Ikasturte akademikoa

2022/2023

Seihilekoa

Udaberria

“Horregatik ematen digu pena handiagoa gazte bat hiltzen denean: marka asko uzten dituelako, eta dena aldatzen duelako igarotzen den lekuan [...] Heriotza hori ikusi egiten da. Ukitu eta usaindu. Guk ez dugu jada ezer askorik aldatzen. Ez gara ezer askorik bizi”

LABURPENA

Hitz gakoak:

Etengabeko aldaketen menpe dagoen eta noizbehinka ezegonkorra suerta daitekeen gizarte honetan, hezkuntzak ere gizartearen eskutik eraldaketa hauekin batera aurrera pausoak eman beharko lituzke, etorkizunean egunerokotasunean suerta litezkeen erronkei aurre egiteko baliabideak eskura dituzten ikasleak egon daitezen. Bestalde, gerontologia feministaren ikuspegitik euskaldunok hain berezko dugun hizkuntza eta kulturaren oinarrian zedarritzen den literaturaren baitan urteetan zehar azpiratua egon den zahartzaroaren gaiari helduko zaio lan honetan.

Landuko diren edukiei dagokienez, emakumeen zahartze prozesuak gizartean ez ezik, historian zehar eta gaur egun literaturan ere izan duen trataera izango da hizpide. Horretarako, batetik, emakumeen eta gizonen zahartze prozesuaren aurreiritzi eta estereotipoen gaineko gogoeta eta azterketa egingo da, bi generoen arteko zahartze prozesuan egon izan diren arrakala edo hutsuneak behatuz. Bestetik, gai hau jorratu dituzten emakume idazle euskaldunak ez ezik kanpoko erreferente batzuk ere aipatuko dira. Amaitzeko, gai hauen gaineko hausnarketa eta etorkizuneko gizartearen zutabe izango diren ikasle horien iritzi kritikoa sustatzeko jardueren proposamena egingo da.

Hitz gakoak: Zahartzaroa, literatura, gerontologia feminista, aurreiritziak, aniztasuna.

RESUMEN

En una sociedad sometida a continuos cambios y que ocasionalmente puede resultar inestable, la educación debería avanzar de la mano de la sociedad para que en el futuro haya alumnos y alumnas con los recursos necesarios para afrontar los retos que puedan surgir en el día a día. En este trabajo se abordará el tema de la vejez que, durante años, ha estado subyacente en la literatura que marca la base de una lengua cultura tan propia como la vasca desde el punto de vista de la gerontología feminista.

En cuanto a los contenidos que se trabajarán, se abordará el tratamiento que el proceso de envejecimiento de las mujeres ha tenido tanto en la sociedad como en la literatura. Para ello, se analizarán los prejuicios y estereotipos existentes en el envejecimiento de mujeres y hombres, observando la brecha que existe en el proceso de envejecimiento de ambos géneros.

Por otro lado, además de las escritoras euskaldunes que han tratado este tema, se mencionarán algunos referentes de otros países. Finalmente, se hará una reflexión sobre estos temas y una propuesta de actividades que fomenten la opinión crítica de los alumnos que serán pilares fundamentales de la sociedad del futuro.

Palabras clave: Vejez, literatura, gerontología feminista, prejuicios, diversidad.

RESUME

In a society that is subject to continuous change and which can occasionally be unstable, education should advance hand in hand with society so that in the future there will be pupils with the necessary resources to face the challenges that may arise in everyday life. In this work, the subject of old age which, for years, has been underlying the literature that marks the basis of a cultural language as characteristic as the Basque language, will be dealt with from the point of view of feminist gerontology.

With regard to the contents to be worked on, the treatment that the ageing process of women has had both in society and in literature will be dealt with. To this end, the prejudices and stereotypes existing in the ageing of women and men will be analysed, observing the gap that exists in the ageing process of both genders.

On the other hand, in addition to Basque women writers who have dealt with this subject, some references from other countries will be mentioned. Finally, there will be a reflection on these issues and a proposal for activities to encourage the critical opinion of the pupils who will be fundamental pillars of the society of the future.

Key words: Old age, literature, feminist gerontology, prejudice, diversity.

Aurkibidea

1. Sarrera	7
2. Gaiaren hautaketaren zergatiak	8
3. Helburuak	9
4. Marko teorikoa	10
4.1. Atzerriko erreferenteak	11
4.1.1. Simone de Beauvoir	11
4.1.2. Iris Murdoch	12
4.1.3. Doris Lessing	13
4.2. Emakumeak literaturaren historian	14
4.3. Euskal emakume idazleak eta lanak	17
4.3.1. Karmele Jaio: <i>Musika airean</i>	17
4.3.2. Uxue Alberdi: <i>Aulki-jokoa</i>	17
4.3.3. Arantxa Urretabizkaia: <i>3 Mariak</i>	19
5. Marko praktikoa	20
5.1. Curriculuma	22
6. Ondorioak	32
Erreferentziak	33

1. Sarrera

Lan honetan emakumeen zahartze prozesua, honek zamatu izan dituen estereotipoak eta hainbat idazlek gai hau jorrazteko baliatu dituzten ezaugarri narratologikoak izango dira hizpide. Bestalde, eta teoria hutsa ekiditeko asmoz, bigarren hezkuntzako ikasleek gai honen inguruan eduki ditzaketen aurreiritzi eta usteei helduko zaie, dela haiei gaiaren inguruko galdera zuzenak eginez nola eurak eraiki behar izango dituzten idazkiak behatuz eta hauek aztertuz. Horretarako, hainbat emakumek idatzitako nobelak hartu dira oinarri, dela euskal idazle emakumeak zein beste herrialdeko sortzaileak. Aukeratutako nobelei dagokinez, euskal idazleen atalean Karmele Jaioren *Musika airean* (2009), Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* (2009) eta Arantxa Urretabizkaiaren *3 Mariak* (2010) ditugu. Atzerriko idazleei dagokienez eta gai honetan erreferente diren aldetik, Doris Lessing, Simone de Beauvoir eta Iris Murdoch aipatuko dira ere gure herriko eta atzerriko literatura feminista eta gerontologiko zabalagoa egin ahal izateko. Zahartzaroa gai nagusia duten nobelak izanik, autoreek harremanak eta gatazka dituzte amankomunean, eta honetarako gai horiei nola heltzen zaien aztertuko da, gainera bada ere, narratologiaren ikuspegitik.

Lan honen helburua ikasleek belaunaldi eta herrialde ezberdinetako idazle emakumeek beren literaturan zahartzaroa nola jorrazten duten ezagut dezaten da, idazterakoan norberak nabarmentzen dituen berezitasunei so eginez. Gainera, oinarrizko helburu honetatik abiatuz, zehatzagoa den helburu edo galdera bati erantzuten saiatzea izango da beste jomugetako bat: Emakumearen zahartze prozesuaren estereotipo eta aurreiritziek berdin eragiten al diete emakume guztiei, edo arrakalak al daude belaunaldi, herrialde eta egoera sozio ekonomikoen arabera?

Baliabide narratologikoei dagokienez, hauek identifikatu eta oinarri solido modura Hernández Abaituaren *Narrazio tailerra* lana zutabe harturik ikasturtean zehar landuko diren nobelen deskribapen narratologikoa egingo da. Bertan, aipatutako gaia jorrazteko obretan nabarmentzekoak izan daitezkeen ezaugarriak ematen dira. Amaitzeko, landuko diren obretako pertsonaia nagusiak emakumeak diren aldetik, Cardeñosoren (2011)ko *Emakumea gizartearen ispiluan, itzala ala sormena?* idazlanean lantzen diren emakumeen arketipoei helduko zaie, eta hautatutako eleberrietan zehar ager litezkeen pertsonaia femeninoen ezaugarriekin konparatuko dira, estereotipo hauek izan ditzaketen trataerei ikuspuntu desberdin bat eskaintzeko asmoz.

2. Gaiaren hautaketaren zergatiak

Aurretik jada aipatu bada ere, Master Amaierako lan honetan gerontologia feminista izango da hizpide nagusi, eta atal honetan gaiaren aukeraketaren arrazoiari helduko zaio. Azken urteotan, biztanleriaren zahartze progresiboaren ondorioz zahartze prozesuari eta zahartzaroari berari arreta handiagoa eskeini zaio. Hala ere, eta lan honetan dakardana edozein herriko plazan entzungai dagoen mintzagaia den arren, gaiaren muina osatzen duten funtsezko alderdi bat ahazten da sarritan: generoaren eta zahartzaroaren arteko elkargunea. Ildo horretan, gerontologia feministak urteetan zehar ikusezin izan den bidegurutze horri erreparatzen dio, eta “adineko emakume” edo emakume “zahar”-ek gure gizartean dituzten esperientzia eta erronka espezifikoak nabarmentzen ditu.

Bestalde, aurretik esan bezala gaia bera gizartean hizpide ohikoa izan daitekeen arren, bigarren hezkuntzako ikasgeletan sarritan jorratzen ez den gaia dela jakin badakit, izan ere, ulertzekoa baita adin tarte honekiko duen distantziaren ondorioz ikasleentzat interes eskaseko gaia izateaz gain lantzeko lan nekeza izan daitekeela. Hala ere, eta gai hau ikasle nerabeekin lantzea zamatsua izan daitekeela jakinda, ikasle gazteak zahartzaroaren errealitateaz eta generoak prozesu horretan duen eraginaz sentsibilizatzea da helburu, eta, bestalde, bizitzaren edozein etapatan gorpuzten den giza aniztasunaren ikuspegi kritikoa gara dezaten.

Gerontologia feministak gure gizartean sutsuki erroturik dauden genero-estereotipoak behatu eta lantzen ditu. Zahartze prozesuan murgildurik egon diren eta egun dauden emakumeak historikoki ikusezinak izateaz gain, rol estereotipatuak esleitu izan zaizkie eta diskriminazio edo baztertzeko bikoitza jasan izan dute. Batetik, gainerako epealdietan bizirik dagoen genero bazterketa, eta bestetik adinarekin loturikoak. Hau horrela, ikasleek gertakari horren berri jakin edo errealitate horretaz konturatzean, zahartzaroari lotutako estereotipo ezkorrak zalantzan jartzea edo iritzi hauek desagiteko gaitasuna garatzea bilatzen da, orokorrean pertsona zaharren eta zehazki emakume zaharren gaineko ikuspegi bidezko eta inklusiboagoa lortze aldera.

Horrez gain, gerontologia feministak emakume adinduen autonomiaren eta eskubideen garrantzia nabarmentzen du. Gainerako epealdietan presente dauden botere-egitura eta genero-desberdintasunek zahartzaroan ere bere horretan diraute, eta hauen azterketa kritikoaren bidez ikasleen ahulduntzea bilatzen da, eta beraz, behin tresna horiek eskuraturik, bizitzaren edozein etapatan berdintasunaren eta duintasunaren aldeko borroka duen garrantzia uler dezaten. Horrek zahartze prozesuan edo zahartzaroan dauden pertsonetikiko errespetuzko, enpatiazko eta

elkatasunezko jarrerak sustatuko ditu, eta adinagatiko bazterketa ez ezik genero-zapalkuntza ere jasaten duten emakumeen berri izanda, norberak etorkizunean gertakari honekiko hautatuko duen jarrera hobets dezan.

Azkenik, gerontologia feministak zahartze prozesuarekin zerikusia duten politika eta praktika eta gertakari sozialei buruzko ikuspegi kritiko eta gogoetatsua eskaintzen du. Hau horrela, ikasle gazteek politikan, osasun-arretan, zainketetan eta zahartzaroarekin loturiko beste hainbat alorretan genero-inplikazioak duen garrantziaren berri izango dute eta, aitzinean aipatu bezala, baldintzatzaileak diren testuinguru horiek ezaguturik, norberak horren gainean eraikiko duen iritzi eta hautua erabaki dezan. Bestela esanda, pentsamendu kritikoa eta kontzientzia aktiboa gara dezaten ahalbidetu diezaieke gizartearen ustezko bidezidorretan gertatzen diren bidegabeken berri izatea, eta beraz, gizarte bidezko eta inklusiboagoa eraikitzeko aukera izango dute.

Laburbilduz, gerontologia feminista DBHko eta Batxilergoko ikasleekin landu beharreko gai gisa hautatzeak zahartzaroari buruzko ikuspegi zabalagoa eta bidezkoagoa sustatzeko beharrari erantzuten dio, generoa faktore nagusi gisa hartuz. Ikuspegi horrek genero-berdintasunarekin, justizia sozialarekin eta gainerako biztanleekiko errespetuarekin arduratutako gazteak bideratuko ditu.

3. Helburuak

Helburu eta hipotesiei dagokienean, ikasleek literaturarekiko duten atxikimenduaren inguruko hausnarketa egiteaz gain, bertan ezagutzen dituzten errealitate eta egoeren gaineko ikuspegi kritikoa gara dezaten da helburu nagusietako bat. Hau da, ikasleek egunerokotasuneko gainontzeko alorretan ere aplikagarriak izan daitezkeen baliabideak eskura izan ditzaten da helburu. Batetik, ikus eta irakur ditzaketen faltsukeriak eta izunak identifikatzen jakitea. Bestetik, aurretik aipatutako ikuspegi kritikoa garatzea, informazioz gainezka dagoen gizartean osagai aktibo izan daitezen, eta ez inolako iragazkirik gabeko ikusle pasiboak.

Beste modu batean esanda, helburua ikasleei literaturarekiko duten atxikimendua eta gizartean iltzaturik dauden estereotipo eta aurreiritzien gaineko ikuspegi kritikoa garatu ahal izateko baliabideak eskaintzea da. Alde batetik nork bere iritzi propioa eraiki dezan da helburu, eta bestetik ezarririk datorzkien horien gaineko aburua eduki dezaten, entzule soilak diren ikasle pasiboak izan ordez aktibo izan ahal izateko baliabideak dituzten gaitasunak piztuz.

Proiektu honen bidez ikasleen pentsamendu kritikoa eta literatura zaletasuna bultzatu nahi da, baina egungo gazteek literaturarekiko dituzten ohitura ezak ezagutzeak hasiera batean literatura zaletasun hau haiengan piztea lan nekeza izango dela aurreikustera eraman gaitzake. Honetarako eta jada aipatu denez, irakaslearen proposamenaz haraindi ikasleek ere gustuko dituzten edo ezagutu nahi dituzten autoreen lanak proposa ditzakete, literatura ikasgaiak inposizioaren kutsua har ez dezan.

4. Marko teorikoa

Esan daiteke gerontologia feminista delakoa edo emakumeen zahartze prozesua urteetan zehar itzalpean egon den gaia izan dela, gizartearen orokortasuna abiapuntu hartuz eta euskal literaturara arte. Aipatutako gaiak gutxinaka gizartearen ezikusiei nolabait aurre egin dien arren, oraindik ere aurreiritzi eta estereotipo hedatuak zamaten dituen hizpidea da. Gerontologia feministaren bidea, ordea, historian zehar pauso txiki baina trinko eta ziurrak eman dituzten aitzindariak zabaldu dituzte. Lan honetan, bide honen pitzaduraz arduratu diren hiru emakume erreferente izango dira hizpide: Doris Lessing, Simone de Beauvoir eta Irish Murdoch. Bestetik, eta lan honetan *Euskara eta literatura* irakasgaien lantzeko proposamen didaktiko bat ekarriko denez, Arantxa Urretabizkaia, Uxue Alberdi eta Karmele Jaio idazleak ekarriko dira; hirurak emakume, hirurak nobelagile eta hirurak zahartzen ari diren emakume protagonistak dituzten istorioen sortzaile.

Lan hau isilpean gorde den emakumeen zahartzearen nondik norakoak ezagutzean datza. Batetik, autoreek euren obratan zer-nolako ikuspegi soziologiko, feminista eta literarioa erabili duen, eta bestetik gaia bera emakume bakoitzak nola landu duen. Honetarako, eta jada aipatu denez, gaiaren hurbilketa bat egingo da, aztergaiari buruzko informazio bilketa bat ekarriz eta hizpide dugun alorrean zeresana izan duten Simone de Beauvoir, Irish Murdoch eta Doris Lessing autore emakumeak aipatuz.

Zahartze prozesuari helduz, etapa hau eraginkortasun urri edo gabeko epetzat hartu izan da, eta honek dakarren pasibitatea oso orokorturik egon da urte askotan zehar.

Hau gutxi balitz, pertsona baten bizitzaren zikloaren amaierarekin lotu izan da, kutsu negatibo batez baliaturik. Zahartzaroaren ikuspegi honek pertsona adinduak bereizteaz gain, adin ertainean zahartzaroaren lehen zantzuak nabaritzen dituen horiek ere banatzen ditu, eta garai honek dekadentzia fisiko zein intelektualaren kutsua hartzen du, norbanakoei nortasuna ukatuz eta apalgunearen pisuarekin zamatuz. Hamarkada batzuk igarotzearen poderioz, zahartzaroaren irudi

monolitiko eta negatibo hori aldatuz joan da, eta gainbehera-etapa hori bizitza-zikloan bestelako lekua eskuratuz joan da gutxinaka.

Lanean aipatzen denez, emakume batek bizitzan zehar jasaten duen genero desberdintasunak, zahartze prozesuan ere bere horretan darrai. Bestela esanda, Fatou & Roldanek (2013) adierazten dutenez, adina biologikoa ez ezik, eraikuntza kultural bat ere bada, eta haren balioespen soziala, aldi berean, elkarreragin sozialaren eta sozializazio prozesuaren emaitza da. Hala ere, emakumeen eta gizonen adin sozialak ez datoz bat, izan ere, emakumeei desberdin epaitzen eta hautematen zaie adin berean. Gertakari honek diskriminazio bikoitza eragiten du maiz; adina eta generoa. Susan Sontag intelektual amerikarrak “zahartzaroaren estandar bikoitza” izendatu zuen 70eko hamarkadan.

4.1. Atzerriko erreferenteak

4.1.1. Simone de Beauvoir

Simone de Beauvoir idazleak gerora arrakasta eta sona handia izan zuen *Le Deuxième Sexe* lana eman zuen argitara 1949. urtean. Bertan emakume izatearen baldintzak aztertu zituen, eta emakumeek bai gizartean bai kulturaren dituen lekuak berraurkitzeari ekin zion. Lilia Elisa Castañónen *Simone de Beauvoir y la condición femenina* lanean autore honen testuingurua aditzera ematen da, aurretik ere emakumea erdigunetzat hartu duten beste hainbat autore aipatuz:

“El Segundo Sexo, publicado en 1949, la convierte en la primera filósofa que clama durante la post-guerra, -época en que las mujeres debían permanecer sumisas a la felicidad doméstica-, la igualdad e independencia femenina. La temática de este libro, la mujer, no es novedosa, ya mucho antes Christine de Pisan, Virginia Wolf, Olympe des Gouges y tantas otras habían alzado la voz para defender sus derechos. La originalidad de Beauvoir consiste en basar su análisis en un inmenso trabajo de documentación surgido del estudio de diversas ciencias: biología, medicina, historia, sociología, psicología.” (Castañón, 2010: 71).

Mariángel Soláns Garcíaren *Representación del envejecimiento en la narrativa de Irish Murdoch* lanean aipatzen denez, Beauvoirrek jada aipatu zuen zahartzaroak epe desberdinak dituela emakumezko eta gizonezkoei erreparatuz gero; gizonezkoen zahartze prozesua graduala eta gutxinakakoa den bitartean, emakumezkoek trauma bortitzen jarraipena jazo behar izaten dute:

“Cada periodo de la vida femenina es quieto y monótono, pero los tránsitos de una fase a otra son de una peligrosa brutalidad; se evidencian con crisis mucho más decisivas que en el varón: pubertad, iniciación sexual, menopausia. Mientras que el hombre envejece de forma constante, la mujer se ve bruscamente despojada de su feminidad; todavía joven, pierde el atractivo erótico y la fecundidad, que le procuraban, a los ojos de la sociedad y a los suyos propios, la justificación de su existencia y sus oportunidades de felicidad: ahora le queda por vivir, privada de todo futuro, más o menos la mitad de su vida adulta. (en Bernárdez Rodal 37)” (Soláns Gracia, 2015 : 77).

4.1.2. Irish Murdoch

Soláns García (2015) lanean Butler gerantologoak eskainitako *ageism* edo *edadismo* terminoak aditzera ematen dira. Adituak adin kronologikoari buruzko ideia irrazionalen orokortzeak, adinarekin loturiko diskriminazioak, gaztetasunarekiko obsesioa eta zahartze prozesuak gizartean erroturik duen heriotzarekiko loturak aztertu zituen, besteak beste. Gainera, lanean zahartzaroan oso ohikoak diren estereotipoak ere aipatzen dira lan honetan. Bertan aipatzen denez, estereotipoak elkarren antzekotzat hartzen ditugun pertsonen informazioa antolatze eta modelatzeko mekanismoak besterik ez dira. Hala ere, Soláns García (2015) lanean aipatzen da hautaturiko hiru nobeletan agerikoa den estereotipo hauen negatibotasuna eta zurruntasuna:

“crean en la sociedad falsas etiquetas negativas de este colectivo, basadas en el desconocimiento del envejecimiento [...] Estas etiquetas se encuentran fuertemente arraigadas y resulta difícil desprenderse de ellas. La percepción del estereotipo es multidimensional, ya que no solo es aceptada por la sociedad en su conjunto, sino que también es interiorizada y adoptada por las propias personas mayores, que se consideran a sí mismas poco atractivas físicamente y desempoderadas socialmente” (Freixas, 1998: 39).

Aitzinean jada aipatu den Soláns García (2015) lanean, Iris Murdoch literatur lanetan ageri diren pertsonaien irudikapenak eskaintzen dira, eta pertsonaia bakoitzarengan zahartze prozesuak eduki ditzakeen gorabeherak plazaratzen dira. Bertan aitortzen denez, lan horretan Iris Murdoch testuen alderdi linguistikoari heldu ordez, ageri dituen pertsonaia fikzionalen konplexutasun eta kontrajartzeak ematen dira aditzera, epealdi honekiko dauden jarrerak askotarikoak baitira. Gainera, zahartze prozesua sozialki zein pertsonalki eragiten duen gertaera izanik, hots, indibiduala zein unibertuala den aldetik, orokortzeetatik abiatuz norberaren bizipenetara heltzen da.

Bestalde, lan honetan zahartze prozesuaren irudikapen ezberdinen arteko erkaketak gauzatzen dira, zahartzen ari diren pertsonaien solasaldi eta etorkizunak kontuan harturik.

Hautaturiko hiru narrazioetan nabarmena den “doble patrón de envejecimiento” delakoa aipatzen du ere Soláns García, zahartze prozesuan eskaintzen diren emakumeen rol-adierazpideak eraikuntza sozial bat besterik ez direla aditzera emanez; historian zehar estereotipo horiek naturalizat hartu diren arren eta urteetan zehar hedapena eta sona lortu duten arren:

“A través de este estudio tomamos conciencia de que muchas de estas representaciones estereotipadas que se nos presentan como naturales y universales no son más que construcciones sociales [...]” (Soláns García, 2015: 15).

4.1.3. Doris Lessing

García Navarrok (2003) *La vejez como materia literaria en la narrativa reciente de Doris Lessing* lanean dioenez, Doris Lessing britaniarrak egonkor edo ezarritzat, legitimotzat jotzen denarekiko bere jarrera adierazten du. Autoreak bere lanetan adinaren irudikapenari, minusbaliotasun fisiko edo psikikoari edo indikazio sexualari buruzko irakurketa iradokitzaileak eskaintzen ditu. Lessingek leku pribilegiatua eskaintzen die bere literaturan globalizazioaren fluxuak egunez egun jasotzen dituen gizarte multikulturalean leku egokia ez dutenei, politika, gizarte, osasun edo adin arazoengatik ikuspuntu sozial, ekonomiko eta kulturaletik garatzeko aukerak murriztuta ikusi dituztenei. Lan honetan ageri diren eta ondoren ekarriko diren hiru euskal eleberriek koherentzia tematiko bat gordetzen dute, eta bertan Lessingek lantzen duen deserrotzea eta jatorriaren bilaketa konstante bihurtzen diren gizarte batek bizitako ondorioak adierazten dira. Hori gertatzen da, batez ere, zahartzaroaren, abandonuaren edo maitasun ezaren esperientzia jasotzen duten emakumeen irudikapenean, baita denboraren joanean eta heriotzaren etorreran ere. Hori guztia Lessingek eskaintzen dituen pertsonaien senaren motorra da, eta Europako gizarteak tradizionalki onartutako balioak zalantzan jartzeaz gain, erakusten du gizabanakoa jada izan zenaren ondorio bat baino ez dela (García, 2003: 27).

4.2. Emakumeak literaturaren historian

Lan honen muina historian baino literaturan datzan arren, egun ezagutzen dugun emakume literatura zaleak egoteaz gain emakume sortzaileak ere egotera heltzera arte literaturan izan zuen guneaz gain, bertan zuen izaera ere ezagutzea egokia litzateke, izan ere, gizonak ez bezala, emakumeak ez baitira betidanik panorama literarioaren atal aktibo izan.

Emakumeak urteetan zehar literaturan izan duen gunea eraldatuz joan da urteen poderioz. Hasiera batean, emakumea objektu literario izan zen. Ondoren, objektu literario hutsa izateari utzi eta irakurle ere izaten hasi zen. Egun, objektu literario eta irakurle hutsa izateaz gain, pasibotasunaren mugak gainditu eta sortzaile ere izatera pasa da. Honek, aldi berean, panorama literarioan ere aldaketa bat gertatzea suposatu zuen, izan ere, ordura arte emakumeek hitz egiten eta iraganean hitz egin izan zutenak gizonak ziren, eta beraz literaturaren bidez hel zitekeen emakumeari buruzko irudia gizonezkoek sortutako balizko ekoizpenak ziren. Ildo beretik, urteetan zehar literaturan emakumeei esleitu izan zaizkien estereotipo eta ezaugarri fisiko zein mentalak oso normatibizatuak izan dira, eta beraz, nekez esan daiteke errealitate anitzarekin bat egiten zuenik. Hau horrela, emakumeak panorama literarioan izan duen leku eta forma aldaketa horrek gorputz eta izaera kanoniko edo normatibo horiek egiazkotasunaren forma hartzea ahalbidetu zuen.

Aurretik aipatutakoa jakinda, eta emakumeak literaturan beretu izan duen guneari so egin nahi bazaio, ezinbestekoa da emakumeek literaturan eduki dituzten formen arteko bereizketa egitea: emakumea objektu literariotzat, emakume irakurlea eta emakume sortzailea. Bereizketa hau egiten bada, emakumeak literaturan izan duen gunearen gaineko ikerketa bai sinkroniko nola diakroniko oso ezberdinak lortuko dira; lehenengo bi aukerek ikuspegi tradizionala sustatzen dute -hots, literaturaren bidez heltzen zaizkigun emakumeen irudiak gizon sortzaileen behaketatik sortuak dira, eta beraz, partaide aktibo ez diren aldetik, estatismoaren bidezidorretara etsiak- eta emakumeak egokitzen zaizkien estereotipo kanoniko horiek barneratzera ere iristen dira (Moliner, 1996: 192).

XIX. mendean emakumeak hain zeuden gizonezkoengandik baldintzaturik, ezen opresio horren aurka borrokatzeko modua goitizen faltsuak erabiltzea zen. Hau da, garai honetan emakumeek panorama literarioan subjektu aktibo moduan parte hartzeko aukerarik ez zuten, modu anonimoak idazten zuten edo gizonezkoen izenak jartzen zituzten, eta izen faltsu horren mesedetan idatzi. Hala ere, gertakari honek ere genero arteko arrakala berriro ere agerian uzten zuen, emakumeek ez baitzuten euren lanak publikoki aitortzeko aukerarik izaten, eta lan hauen benetako balioa bide horretan lausotzen zen.

Hala ere, mende berriaren etorrerak literaturan iraultza feminista ekarri zuen harekin, izan ere, XX. mendean XIX. mendeko emakumeen isiltasunaren gabeziak estaltzen hasi ziren, eta literaturan izen femeninoak egoten hasi zen. Euren nortasunak ezkutatzeko behar horri aurre egiteaz gain, XX. mendetik aurrera emakume idazleek genero-desberdintasunari eta indarkeria matxistari buruzko lanak eskaini zituzten. Modu honetan, mugimendu feministaren lehenengo oinarriak errotzen hasi ziren.

XX. mendean emakumeen errai eta eskuetatik sortutako eraikuntza literarioek gora egin zuten, baina ez hori bakarrik. Garai honetan sortutako literatura -eta aurreko egoera baztertzaila kontuan harturik- aipatu beharrekoa den ezaugarri bat zuen: Emakumeek sortzen zuten literatura ez zen gizonezkoek ordura arte egin zuten eta arauemaitzat hartzen zen literatura horren antzekoa. Are gehiago, ordura arte gizartearen gutxieneko osagaitzat hartuak izan ziren arren- eta gutxiengotik ezer-gutxi duen kolektibo baten parte direla ohartuta- euren literatura propio, berezko eta bereizgarria egiten hasi ziren. Baina, zergatik zen orduko emakumeen literatura bereizgarri? Gizartearen gutxiengoa ez izan arren, urteetan zehar gutxietsi eta zokoratuak izan zirelako, eta ordura arte ezeztatu zitzaizkien gizarteko gune horiek bereganatzen hasi zirelako, eta gutxietsiak izate horrek sortutako suminetik eta suminaz idazten hasi zirelako (Moliner, 2013: 190).

Behin emakumeak orokorrean literaturan emandako aurrera pausoak aipatuta, beha diezaiogun euskal emakumeak panorama literarioan izandako guneari. Euskaraz heldu zaizkigun lehengo idazkiak gizonezkoek sortuak izan ziren. Aski ezagunak dira euskaldunon artean Bernard Etxepareren 1545. urteko *Linguae Vasconum Primitiae*, Lazarragaren *Eskuizkribua* (1567-1602) edo Leizarragaren *Testamentu berria* (1571). Aipatzekoa da, dena den, *Testamentu Berria* euskaratzeko agindua emakume batek eman zuela (Labriteko Joana Nafarroako erreginak, hain zuzen ere). Hala ere, eta aurretik obra eta autore hauei euskal kultura eta historian izandako eragin eta merezimendua aitortuta, hausnartzekoa da ere panorama horretan bertan euskal emakumeek ez ote zuten zer esan eta zer idatzi, edo aitzitik, ez ote zioten esan behar zuten horri behar beste leku utzi (eta agian baliabiderik ere ez). Beraz, historian zehar emakume idazleek genero-diskriminazioarekin, zentsurarekin eta aintzatespen ezarekin lotutako erronka eta oztopoei aurre egin diete.

Erdi Aroan idazten eta beraz, helarazten zen emakumearen irudia, honek gizonekin zuen harremanen arabera antolaturik zegoen. Hau da, eta zehaztasunaren mesedetan, emakumeek zituzten -eta eduki zitzaizketen- egoerak mojak, ezkongabeak, ezkonduak edo alargunak ziren (San Juan, 2021).

Bestalde, Cristina Segura Graíño autorearen arabera, tradiziozko edo ohiturazko historiaren arabera, iturri historikoak dokumentu idatzi eta objektiboek osatzen zituzten -kronikak, dokumentazio juridikoak, monasterioetako kartularioak eta abar, esate baterako- eta beraz objektibotasun horrretatik harago zeudenak ez ziren iturri historikotzat hartzen. Are gehiago, gizateriaren benetako iragana gauzak “gertatu ziren bezala” biltzen zituzten dokumentuetan oinarritzen zen, eta idazki horiek ziren iturri historiko egokitzat jotzen zirenak, gertaeren narrazio edo deskribapen baten bidezko idazki objektiboak omen baitziren (hala ere, ideia hau ere zalantzan jar zitekeen, izan ere, ahalik eta dokumentu objektiboenak izateko asmoa eduki arren, idazki batean nekez ekidin daiteke autorearen beraren edolonako eragina, gutxienekoa bada ere). Iritzi edo pentsamolde honek, ondorioz, gizartea literatura-iturriak arbuizatzen bultzatu zuen, literatura sorkuntzek, omen, ez baitzituzten iturri historikoaren parte izateko behar beste ezaugarri (Segura , 2001: 13).

Testuinguru horretan, gainera, emakumeek oro har sarbide mugatua zuten bai idatzizko testuak irakurri ahal izateko zein haiek euren produkzioak sortu ahal izateko. Hona hemen aipatutako mugen isla argia izan daitekeen emakumeen eta gizonezkoen alfabetizazioaren ehuneko batzuk, Gómez Seibane-ren lanean ekarria:

1. Taula: Emakume eta gizonen alfabetizazioa XIX. mendeko Euskal herrian:

	Hombres				Mujeres		
	1860	1900	1930		1860	1900	1930
Bizkaia urbana	49	80,2	92,5	Bizkaia urbana	25,3	61,9	85,8
Bizkaia rural		70,9	88	Bizkaia rural		49	77,8
Gipuzkoa urbana	36,6	59,9	92,3	Gipuzkoa urbana	17,1	45,7	88,5
Gipuzkoa rural		39,7	74,7	Gipuzkoa rural		29,8	79,1
Araba urbana	66	-	95,6	Araba urbana	23,8	-	91,3
Araba rural		79,5	94,3	Araba rural		55,1	87,1

Taula honek dakarren informazioa gune, testuinguru eta urte batzuetara mugatzen den arren, gure lurraldeko historiaren luze-zabalean ekoizpen literarioan eragin handia izan duen egoera islatzen du, izan ere, gizonezkoen alfabetazio kopurua XIX. mendearen erdialdean oraindik emakumeena baino nabarmenki altuagoa zen, eta beraz, ekoizpen literarioetan arrakala handiak sortu zituen eragilea izan zen. Alfabetizazioa irakurri eta literatura ekoizteko baliabidetzat harturik, urteetan zehar errekurtsio hauek gizonen (eta zehazki, elizgizonen) eskura zeuden, eta beraz panorama literarioa urteetan euren esku eta prismatik sortuak izan ziren, eta beraz, zimendu horietan zedarrituak.

4.3. Euskal emakume idazleak eta lanak

Atal honetan emakumeen zahartzaroa euskal literaturan dugu aztergai. Horretarako, hiru idazle emakume euskaldunen hiru nobela aukeratu dira. Hiru idazle hauen aukeraketari dagokionez, zilegi litzateke aipatzea adinari dagokionez belaunaldi desberdinetakoak direla hiru autoreak, eta bertatik abiatuz norberak modu desberdinean heltzen diola zahartze prozesuari. Hiru eleberrietan zahartze prozesua modu arin eta ulergarrian aztertzen den arren, norberak baliabide narratologiko batzuk darabiltza, gaiaren ikusgarritasun eta ulergarritasunaren mesedetan. Gainera, hiru idazleak emakumeak diren aldetik, gerontologiari ere modu desberdinean helduko diote, irakurleari zahartze prozesuan murgildurik dagoen emakumea izateak eduki ditzakeen genero-ikuspegiaren zenbait alderdi eskainiz.

Aurretik aipatutako autoreen ildotik, jarraian zahartzaroa ikuspegi feminista batetik jorratu duten hiru idazle euskaldun izango dira hizpide. Hiru autore atzerritarrek XX. mendearen lehen laurdenean jaiotakoak izanik, zahartze prozesuak beregain hartu dituen eta urteetan hedatuak izan diren estereotipoak eraikuntza sozialak besterik ez direla aditzera eman zuten, literatura feministaren bideak zabalduz eta ordura arte ahotsik ez zuten emakume adinduei isiltasun horretatik ateratzeko baliabideak eskainiz. Beraz, aukeratutako euskal idazleak ere euskal literaturan irekitze lanean aritu diren aldetik, garai bertsean zahartze prozesua jorratu duten autoreak eta euren lanak aurkeztuko dira jarraian.

4.3.1. Karmele Jaio: *Musika airean*

Karmele Jaio Eiguren Gasteizen jaio zen, 1970. urtean. Euskal Herriko Unibertsitatean Informazio Zientzietan lizentziatu zen, eta ordutik Gara eta Euskaldunon Egunkaria tankerako komunikabideetan kazetari jarduteaz gain, *Diario de Noticias de Álava* eta *Deia* bezalakoetan ere iritzi zutabeak idatzi ohi ditu. Autorearen literatura ekoizpenei dagokienez, hainbat genero jorratu izan ditu, hala nola narrazioa eta poesia. Bere lanak aipatzearen, hiru ipuin liburu idatzi ditu; *Hamabost zauri* (Elkar, 2004), *Zu bezain ahul* (Elkar, 2007) eta *Ez naiz ni* (Elkar, 2012). Bestalde, hiru nobela argitaratu ditu, *Amaren eskuak* (Elkar, 2006), *Musika airean* (Elkar, 2009) eta *Aitaren etxea* (Elkar, 2019). Poesia liburu bat plazaratu zuen ere; *Orain hilak ditugu* (Elkar, 2015). Esan beharra dago 2006. urtean argitaratu zuen *Amaren eskuak* arrakasta handia eduki zuela, eta *Las manos de mi madre* izenburupean gaztelaniara itzultzeaz gain, Mireia Gabilondok 2013ko Donostiako Zinemaldian aurkezteko zinemarako bertseioa zuzendu zuen ere. Bere nobela berrienari dagokionez, “gizon berri

guztiek zuzendurikoa”, argitaratu eta hurrengo urtean jada *La casa del padre* tituluarekin gaztelaniara ekarri zuen. Hona hemen proposamen didaktikoan gerontologia feminista lantzeko proposatu den nobelaren laburpena:

Karmele Jaioren *Musika airean* nobelan Elena dugu protagonista nagusia. Etxetik gutxi ateratzen den arren, nahikoa du egunak leihotik begira ematearekin, egin beharrekoak aspaldian eginda egongo bailiran. Bere besaulkian eserita lasai dago, zahartzaroan eta epealdi honetan berezkoak diren oroitzapenetan murgildurik baitago protagonista. Kontenplazio horretan murgildurik dago, eta musikak garrantzi handia hartzen du obra guztian zehar. Batetik, musika hau edozeinek entzun dezakeen doinu ageriko eta haztagaia izan daiteke. Bestetik ordea, norberak adimenean iltzaturik daukan barreneko melodia zein burrunba partikularra ere bada. Ildo honetatik, nobela Elenaren pentsamenduek sortzen duten barne-hots edo pentsamenduetatik ernatzen da, eta zahartze prozesuari arnegatzen dion emakume tradizional bat eskaintzen zaigu kontakizunaren hasieratik. Hala eta guztiz ere, bakardade eta isiltasun hau arrakalatzeko duen emakume ekuadortarrak tokia hartzen duen heinean, Elenaren burrunbak indargabetzen joango dira, musika eder bat entzutea lortzen duen arte. Bestela esanda, zahartze prozesuan dagoen protagonistak gaztaroan dagoen beste emakume bat ezagutzearen ideiarik leku ematen dionean, bere egunerokoan arruntak ez diren bizimodu eta bizinahiak ezagutzeko bideak ahalbidetzen ditu.

Elenak haurtzaroan bere laguna izan zen Carmenen etxera begira iragaten ditu egunak, eta konturatu da jada badirela egun batzuk bere adiskide zena etxetik atera ez dela; gaixorik omen dago, damutasunak jota. Badira 30 urte ez diotela elkarri hitz egiten, bi arrazoi nagusigatik: Elenaren esanetan, Carmenek berarekin egon beharko lukeen gizona ebatsi zion. Gainera, bere senar Isidrorekin oheratu izana ere aurpegiatzen dio. Aipatutakoa gutxi balitz, hilabete batzuen buruan Carmen haurdun zegoela jakin izan zen, Carmenen senarra antzua izanik, eta orduan hasi zen Elena gertakariak eta ondorioak harilkatzen. Gauzak horrela, bere bizitzako azken urtean pizgarri bakarra leihotik begiratzea duen emakume tematiak iraganean ainguraturik bizi duen erresumina kudeatzen ikasi beharko du, berun hau askatu eta ordutik aurrerako urteak barkamen gune batetik bideratu ahal izateko. 13 Protagonistaren esanetan, itsu gelditzeari sekulako beldurra dio, begiak baitira bere arnagune bakarra. Seme-alabek Beatriz euren amaren bizitzan makulu izango dela uste dute, horregatik hartu dute bere laguntzailezat. Hala ere, eta hastapenetan betidanik zaintzailearen rola bere gain hartu duen Elenak zaindua izatearen ideia gaitzesten duen arren, Beatrizen ardurak gutxinaka protagonistaren hostasuna epeltzea lortuko du, haien arteko elkarbizitza zutoin abegitsuagoetan eraiki arte.

4.3.2. Uxue Alberdi: *Aulki-jokoa*

Uxue Alberdi Estibaritz Elgoibarren jaio zen, 1984. urtean. Idazle ez ezik, bertsolari ere den autore honek bi sail nagusi landu ditu. Batetik narrazioari heldu dio, eta bestetik haur eta gazte literaturari. Beraz, lan hau gauzatzeko hautaturiko *Aulki-jokoa* lana narrazioaren esparruan kokatzen da. Alberdik Kazetaritza ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta bere lehenengo liburua izan zen *Aulki bat elurretan* 2007. urtean kaleratu zuen, Idazle gazteentzako Igartza bekari esker. Narrazio lanei dagokienez, lan honi aztergai den *Aulki-jokoa* (Elkar, 2009) lanak jarraitu zion, eta 2012. urtean Miren Agur Meabe idazleak gaztelerara eraman zuen, *El juego de las sillas* izenburupean. Gerora *Euli-giro* (Susa, 2013), *Jenisjoplin* (Susa, 2017) eta *Dendaostekoak* (Alberdania, 2020) plazaratu ditu.

Aulki-jokoa nobelan hiru emakume ditugu protagonista nagusiak; Teresa, Martiña eta Eulali. Kantoietara izeneko herri batean elkarrekin bizitako pasarteak eskaintzen zaizkigu orainalditik iraganerako saltoak eginez, eta hiru protagonisten bizipenak ez ezik, herriaren historia ere kontatzen da. Hau da, istorio partikularretatik abiatuz historia kolektiboranzko saltoak agerikoak dira. Eleberrian hiru emakume protagonistek bizi izan dituzten haurtzaro, gaztaro eta zahartzaroak aditzera ematen dira. Kontuan hartu beharrekoa zera da, memorian oinarrituriko kontakizun bat den aldetik, narrazioa zatikaturik ageri dela, bai denboran, espazioan zein kontakizunaz arduratzen diren ahotsei dagokienez. Guda Zibilaren ingurumariak kontatzea da obra honen helburua, baina behin honetan autoreak alde batera uzten du lubakian jasandako gerra, eta gure herriko sukaldeetan lehertutako gudei ahotsa ematen die.

Iraganeko kontakizunari erreparatuz, igandeak oso politak dira herrian, emakume guztiak elkartzen dira haria lantzeko eta galtzerdiak egiteko, eta gudaz ez da gehiegi hitz egiten, nork bere minen gatazkak etxeko ateen barnean libratzen dituelako.

Esan bezala, iragana (hau da, guda garaia) eta orainaldia tartekatzen dira kontakizun honetan. Orainaldiari dagokionez, hiru emakume protagonista eta bizitzaren azken aldiak dabilzan beste hainbat agure ageri zaizkigu. Kantoietako gozotegian elkartzen dira arratsaldero kafea hartzeko, eta guztien artean mila urte baino gehiago osatzen dituzte, baina bizitzaren beraren metafora bat den aulki-jokoari men eginez, gozotegi honetan ere gazia den gertakari bat zabaltzen ari da; eserlekuak hutsik gelditzen hasiak dira.

Gozotegiko agureen aulki-joko zoroan bere aulkia hutsik uzten duen parte hartzaile bat dagoen aldi bakoitzean, berriro mila urtetara iristeko itxaropen oro desegiten da, eta denbora pasatu ahala, etsipena are eta sendoagoa da.

Zahartzaroan murgildurik, Martiñak tronbosi bat izan du, eta honek zein urteen iraganak eraginak sortu ditu. Iraganean, Martiñaren familiak denda bat zeukan. Bertan ama eta gure protagonista aritzen ziren. Aitak, ordea, bizartegi bat zeukan. Teresak eta Martiñak oso harreman estua dute gaztarotik. Lehenengoak bigarrenak baino zazpi urte gehiago dituen arren, erlazio sendoa eraikitzeaz arduratzen dira, euren arteko desberdintasunetan indarguneak topatuz.

Eulali gor geratu da, eta bere barne-bakarrizketan dabilela aitortzen du belarriak kartzelak direla, eta soinu artean preso bizi dela entzumenaren zentzua duen oro. Horregatik, Eulaliren esanetan, mundua ulertzeko nahikoa dugu memoriarekin eta gertaeren berri ematen dizuten lagunen ukondoekin. Eutimiok guda garaian Frantziara ihes egiten du, eta aditzera ematen denez, Martiña adin nagusira heltzen den egunean frankistek Kantoietara hartzen dute. Une horretan gudaren nondik norakoak eskaintzen dira, baina ezohikoa den gune batetik kontaktatzen da. Nobela osoan zehar ikus daitekeenez, giro gatazkatsu horretan nork bere aldetik lehiatzen du; batzuk zapaltzaileen zerbitzuan jarduten diren bitartean, besteek zapalduen alde egiteko erabakia hartzen dute.

4.3.3. Arantxa Urretabizkaia: 3 Mariak

Arantxa Urretabizkaia Bejarano Donostian sortu zen, 1947. urtean. Bartzelonako unibertsitatean kazetaritza ikasi zuen, beraz, hautaturiko hiru autoreek badute zer partekatu, kazetaritza eta literaturan ibiliak baitira hirurak. Hala ere, Urretabizkaia hamahiru urterekin idazkaritza ikasten hasi zen, eta hamasei urte zituelarik erizaintza. 1975. urtean Historian lizentziatu zen, eta 1977. urtean ekin zion kazetaritza ikasteari. Orduetik, *Egin*, *Deia*, *Diario Vasco*, *El Mundo* eta *ETB-n* aritu da, besteak beste. Narrazio lanei dagokienez, *Zergatik panpox* (Hordago, 1979), *Aspaldian espero zaitudalako ez nago sekula bakarrik* (Erein, 1983), *Saturno* (Erein, 1987), *Koaderno gorria* (Erein, 1998), aztergai dugun *3 Mariak* (Erein, 2010) eta *Zuri-beltzeko argazkiak* (Pamiela, 2014). Urretabizkaia *Zergatik panpox* lanarekin lortu zuen arrakastarik handiena, bere narrazio-estrategia modernotasunean oinarrituta eta jorratutako gaia berritzailea baitzen. Bertan, egunaren hasierarekin hasi eta honen itzaltzearekin amaitzen den emazte baten barne-bakarrizketa bat dakarkigu Urretabizkaia. Liburu honen bitartez, autoreak sona handia lortu zuen, izan ere euskal irakurleari ordura arte irakurri ezin zezakeen zerbait eskaini zion; euskaraz idatzitako narrazio bat, intimitatearen gaia jorratzen zuena, emakume baten ahotsaz kontatua eta barne-bakarrizketei gune handia emanez.

Aulki-jokoa eleberrian bezala, *3 Mariak* lanean hiru dira istorio hau josten duten emakumeak; Txuri, Gorri eta Handi. Hiru pertsonaiek Maria izena ez ezik, gerra giroa eta orduan sorturiko harremana partekatzen dute. Hala ere, Urretabizkaiak istorioan 3 Marien gaztaroko harremanaren izaeraren berri ematen digun arren, narrazioa orainaldian dago kontaturik, eta orain hiru emakumeak zahartzaroan murgildurik daude jada, gerra zibila pasatu ondoren nor bere bizitza bideraturik. Pertsonaia nagusia eta narratzaile lana hartzen duena Txuri ezizenez ezaguturikoa da, baina Maria Alkain da bere izena. Txuri alargun gelditu da laurogei urteen mugan, eta une honetan bigarren pertsonaia ageri da; Gorri. Txuri eta Gorri lagun minak izan dira betidanik, Handi pertsoniarekin batera. Txuriren senarra zenaren hileta-elizkizunean agertzen da Gorri, ordura arte Txurik eduki zuen bizimodu tradizional eta itxuraz pasiboa hankaz gora jartzeko prest. Honi buruz ezer-gutxi aipatzen den arren, Txurik aspaldi alaba galdu zuen.

Gorrik Txuriren bizitzara itzultzea erabakitzen duen unean, euren arteko desberdintasunak agerian gelditzen dira. Hasteko, Gorri aspaldi joan zen herritik; Gerra garaian Frantzian ibili zen, lehenik neskame eta gero jostun, eta orduan galdu zuen Txurik Gorriren arrastoa. Gerra bukatzearekin batera Ameriketara joan zen, eta bere habia Mexikon finkatu zuen azkenik. Bizimodu honek herriaren tradizioetik haratago dagoen mundua ezagutzea ahalbidetu zion Gorriari, gataska ingurunea bertan utzirik. Txuri ordea, herrian jaio, herrian hezi eta herrian zahartu eta ainguratu da. Bertan bizi izan da beti bere senar Joxe Agirrerekin, Elustondo izeneko kostaldeko herri txiki batean. Bi pertsonaia hauen bizimoduak zeharo desberdinak izateaz gain, zahartzaroari buruz duten iritzia ere urrun dago, istoriak aurrera egin ahala tarte hau murrizten joango den arren.

Adinaren aldetik, zahartzaroaren gaineko euren jarrera eta igurikimena ere oso bestelakoa da. Gauzak horrela, bi izaera kontrajarri hauek banaezinak bihurtuko dira orain, bidaide bilakatzeraino. Gorrik Txuriren lasaitasuna astintzen du, eta protagonistak zahartzaroa bideratzeko aukera berriak deskubritzen ditu etorrera honen ondorioz. Hiru Mariek (Mari Txurik, Mari Gorrik eta desagerturik dagoen Mari Handik), gaztaroan eman zioten elkarri zahartzaroan hirurak batera bizitzeko hitza, baina promesa hau bete ahal izateko hirugarren Mari bilatzeari ekin beharko diote. Bilaketa honetan pertsonaia gazteak agertzen dira laguntza gisa; udaleko euren gizarte-laguntzaile den Laida, besteak beste. Gaztea sutsu arituko da bi protagonistek euren txikitako promesa betetze horren lorpenean. Txurik errailetan erroturik zuen bere etxea uzten du, eta Gorriren etxera joango da bizitzera.

5. Arlo praktikoa: Metodologia

5.1. Curriculuma

Gaiaren muinari heldu aurretik, egokia litzateke gaiaren testuinguratzea egitea eta, curriculuma behatuz, lan honen bidez berariaz lortu nahi diren helburuak zehaztea. Hona hemen, bere horretan zerrendaturik, Nafarroako Foru Dekretuaren 8. artikuluan ageri diren eta lan honekin bete nahi diren etapako helburuak:

a) Beren betebeharrak erantzukizunez onartzea; beren eskubideak baliatzea, gainerakoekiko begirunez; tolerantzia, lankidetzeta eta pertsonen eta taldeen arteko elkartasuna lantzea; elkarrizketa erabiltzea, giza eskubideak gizarte plural baten balio komun gisa sendotzeari begira, eta herritar demokratikoa izateko prestatzea.

c) Sexuen arteko desberdintasuna eta haien arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna balioetsi eta errespetatzea. Gizonen eta emakumeen arteko diskriminazioa dakarten estereotipoak arbuiatzea.

d) Norberaren gaitasun afektiboak indartzea nortasunaren esparru guztietan eta besteeikiko harremanetan; indarkeria, mota guztietako aurreiritziak eta jokabide sexistak arbuiatzea, eta gatazkak bakebidez konpontzea.

h) Ahoz nahiz idatziz gaztelaniazko (edo, hala badagokio, euskarazko) testu eta mezu konplexuak ulertu eta zuzen adieraztea, eta literatura ezagutzen, irakurtzen eta aztertzen hastea.

j) Norberaren eta gainerako pertsonen kulturaren eta historiaren oinarritzko alderdiak ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, bai eta Nafarroako ondare artistikoa eta kulturala, geografia eta historia eta bertako hizkuntzen, kulturen eta ohituren aniztasuna ere.

k) Norberaren gorputzaren eta gainerakoenen funtzionamendua ezagutu eta onartzea, desberdintasunak errespetatzea, gorputzaren zaintza eta osasun ohiturak sendotzea, eta gorputz hezkuntza eta kirola egitea, garapen pertsonala eta soziala errazteko. Sexualitatearen giza dimentsioa ezagutu eta baloratzea, bere aniztasunarekin.

Atal praktikoa honetan arestian aipatutako curriculumaren helburuak lortze aldera oinarri izango den unitate didaktiko bat proposatuko da. Arlo praktikoa atalari heldu aurretik, aipatu beharra dago proposamen hau Practicum II-an praktikara eramanez zela Iruñeko Sanduzelai auzoko

Iparralde DBHI ikastetxean, hain zuzen ere. Proposamenak lau atal izango ditu, eta lan honen luzeera mugatua den aldetik, horietako biren erantzunak lan honen eranskinetan agertuko dira - proposamenetako bat liburu baten irakurketan datza, eta beraz, ez du erantzun espliziturik, eta besteak ikasle bakoitzak sortutako bi narrazio dira, eta ondorioz, informazio zehatzenak eskaintzen dituzten jarduerak hautatu dira-. Aipatutako ikastetxea D eredukoa da, eta bertan Batxilergo talderik ez dagoela kontuan hartuta, unitate didaktiko hau DBH 4. mailako ikasgela batean astebetetz landu ahal izateko pentsatu zen. Hausnarketa eta gizartean erroturik dauden estigmen deseraikitzea bilatuz, proposizioa ikasgelara eraman zen, eta beraz, zenbat eta adinez helduagoak izan orduan eta hausnarketarako gaitasun zabalagoa izango dutela espero zen hasieratik bertatik.

Ikastetxeak 2018-2019. urtean ireki zituen bere ateak, eta beraz, institutu gaztea izateaz gain bertan eskaintzen den hezkuntza proiektua ere berritzailea da. Aniztasunaren arretari garrantzi handia ematen zaio ikastetxe honetan, eta hau gutxi balitz, inklusio, berdintasun eta bizikidetzak programak eskaintzea da haien helburu funtsezkoa. Beraz, eta aurretik aipatu bezala, unitate didaktiko honekin lortu nahi diren helburuek bat egingo lukete ikastetxeak dituen igurikimenekin. Esan bezala, unitate didaktikoa lau jardueraz osaturik egongo da. Bat urte osoan zehar irakurketa lantzeko dago pentsatua, eta beraz, ikasturte osoa hartuko luke. Gainerako jarduerak, ordea, eta kontuan izanik DBH 4.mailan ikastetxe honetan astean bere horretan euskara irakasgaiari hiru ordu eskaintzen zaizkiola, klase horietako bakoitzean jarduera bat egin zen. Hala ere, jarduera hauekin hasi baino lehen komenigarria litzateke ikasleek feminismoaz gain zahartze prozesuari buruz dituzten ezagutzak identifikatzea, ikaslerian dagoen jakintza mailak jarduera molde bat edo beste ahalbidetu baitezake.

Iparralde DBHIko DBH4. mailako ikasgela honen ezaugarriei dagokienez, esan beharra dago aurreko ikasmailekin alderatuz gero, honetan ikasleek irakaslearekiko izan ohi duten loturan etena ezartzen hasiak direla. Irakasleak proposatutako jarduerak egiten dira, baina lan-giro egokia lortzea nekezagoa da, eta ikasleen euskararekiko atxikimendua ere urria da, beraz, zer esanik ez euskal literaturarekiko atxikimendua. Hala ere, maila guztietako ikasgelak ezagutu ondoren esango nuke 4. mailan heldutasun maila handiagoa ikusten dela, eta lan egiten hastea nekeza den arren ez dute klasea hain modu agerikoan oztopatzen. Aurreko mailan, ordea, zentzu horretan jarrera instrusiboagoa dute, eta irakaslearekiko eta euren arteko enfrentamenduak agerikoagoak dira. Hau esanda, aitortzekoa da ere lan egitea kostatzen zaien ikasleak egon arren lanarekiko prestutasuna agertzen dutenak ere badaudela, eta bertan proposatutako jardueretan, oro har, ikasleen inplikazioa lortu da.

Proposatu diren lau jarduerak iraupen desberdinak dituzte, eta gure praktikaldiak epe-muga zehatz bat izan zuenez, epe luzerako pentsatua zegoen jardueraren emaitzak ezin izan dira ikusi, eta beraz, ondoriorik atera ere. Hala ere, epe-muga luzerako pentsatuta zen jarduera hau euskal emakume idazleek sortutako nobelen bidez gerontologia feminista lantzean zetzan. Horretarako, emakumez eta zahartze prozesuaz jarduten duten -eta arlo teorikoan jada aipatu diren- hiru nobela proposatu zitzaizkien: Karmele Jaioren *Musika airean*, Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* eta Arantxa Urretabizkaiaren *3 Mariak*. Emakume eta nobela hauen aukeraketa, noski, ez da ausazkoa izan. Izan ere, hiru emakume sortzaile hauek belaunaldi eta literatura une desberdinetakoak dira. Lehenengoa, Arantxa Urretabizkaia, euskal literaturan orokorrean belaunaldi aitzindariaren partaide eta, zer esanik ez, euskal emakume sortzaileena. Bigarrenak, aitzindarien lekukoa hartzeaz arduratu diren eta euskal panorama literarioan sona handia eskuratu duten bi emakume sortzaile: Uxue Alberdi elgoibarra eta Karmele Jaio gasteiztarra.

Batetik, narrazio testuak lantzea helburu duen “profilen dinamika” proposatuko da. Jarduera honetarako neska eta mutilez osatutako ahalik eta talde orekatuenak egiten saiatzea litzateke egokiena. Esate baterako, bi neska eta bi mutilez osatutako taldeak. Gainera, Iparralde DBHI ikastetxean ikasleak euren ezaugarri eta beharrezan arabera sailkatzen dituzte, taldekatzeak ahalik eta orekatuenak izan daitezen eta ikasleen arteko kooperazio eraginkorra ahalbidetzeko. Horregatik, ikasleak borobilak, laukiak edo triangeluak izan daitezke, esan bezala, euren ezaugarrien arabera. Beraz, jarduera hau egiteko talde bakoitzean molde guztietako ikasleak elkartuko dira, aniztasunaren mesedetan.

Behin honetan, ikasleek bi narrazio sortuko dituzte. Lehenengo narrazioa emakumeek eta zehazki emakume helduek zamaten dituzten estereotipoak ikasgelan landu aurretik egin beharko dute. Modu honetan, hasierako eta amaierako produkzioen arteko konparaketa egiteko aukera egongo da. Jarraian, arlo teorikoan landu diren gaiak landuko dira, euskal emakume idazleak ezagutzeaz gain feminismoaren aldarria egin zuten atzerriko hainbat erreferente ere ezagut ditzaten. Lanketa honen ondoren, norberak emakume protagonista zaharrak dituzten narrazio deskriptiboak sortu beharko dituzte, eta hauek amaitzean aipatutako taldeetan bilduko dira, euren ekoizpenen gaineko hausnarketak eginez eta istorioetako protagonistei atxiki zaizkien ezaugarriak konparatuz. Honetarako, baliagarria suerta dakikeen honako taula eskainiko zaie, behar izanez gero erabil dezaten:

2. Taula: Ikasleentzako terminologia lagungarria

Terminologia lagungarria
Samurtasuna, ausardia, negar egitea, herabetasuna, sormena, zainketa, bularrak, sentiberatasuna, arrazionaltasuna, erabakia, sumisioa, adeitasuna, abnegazioa, ekimena, aldakortasuna, haurdun geratzea, askatasuna, konformismoa, ahulezia, sexualitatea, indarra, segurtasuna, produktibitatea, kudeaketa, autoritatea, fideltasuna, depresioa, alaitasuna.

Behin lehenengo jarduera amaituta, bigarren jarduerari ekingo zaio. Ariketa hau egin ahal izateko, aurretik ikasgelan zenbait emakume idazleen lanak proposatuko dira. Esate baterako, eta arestian aipatu denez, emakumeen zahartzaroaren gaia jorratzen duten belaunaldi desberdinetako sortzaileak diren aldetik, Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa*, Karmele Jaioren *Musika airean* eta Arantxa Urretabizkaiaren *3 Mariak* proposatuko dira. Hala ere, eta ikasleren batek beste iradokizunen bat edukiko balu, aukerak zabaltzeko aukera dago; materiala lantzeko egokia bada, ikasleek gustuko duten autore bat landuko da.

Bigarren jardueraren helburua argudio testuak lantzea da, eta horretarako gutuna izango da euskarri. Aipatu beharra dago nire praktiken ikasgelan zegoen une curricularrak bat egiten zuela ikasleek gutun bat idazteko proposamenarekin. Beraz, eta betebeharrak hori dutela aprobetxatuz, ikasleak zaharretxe batean edo euren etxe partikularrean bizi direla imajinatu behar dute, eta ikasgelan landutako gaiei buruzko hausnarketa bat egin beharko dute. Hau horrela, komenigarria da lehenik gaiaren inguruko sarrera eta lanketa bat egitea, eta ondoren jarraian aurkeztuko den jarduera egitea. Esan bezala, jarduera hauetan ikasleek gaiari buruzko zer-nolako hausnarketak egin dituzten behatuko da, eta behin honetan horien gaineko gutun batean euren zahartzaroari buruzko iritzia ez ezik, euren burua zahartzaroan nola imajinatzen duten ere islatuko dutela espero da. Esan beharra dago ere jarduera hau ikasturte amaieran sortuko den egunkari moduko baten osagai izango dela. Curriculumean ageri denez, ikasturtean zehar ikasleek hainbat testu mota landu beharko dituzte, eta amaiera aldera horiek guztiak testu-mota guztiak biltzen dituen potafolio birtual batean jarri beharko dituzte.

Behin honetan landuko den gutunaren euskarria papera izango da, eta eskuz idatzitako ariketa izan beharko da. Hala ere, testu mota bakoitzarentzat euskarri bat erabiliko da, eta jarduera guztiak portafoliora igotzen joango dira. Esate baterako, argudio-testuak beste molde baten bidez

landu ahal izateko, ikasleek mahainguru bat egin beharko dute, proposatzen zaizkien gaien alde eta kontrako argudioak emanez. Mahainguru hori ikasleen baimen eta onespenteekin grabatua izango da, eta aipatutako plataformara ere igo. Dena den, eta proiektu hau praktikaldian egiteko luzeegia zenez, ikasleek zahartzaroaren gaia jorrazteko idatzi behar izan zuten gutuna ikastetxean euskarri duten Chromebook-en bidez egin zen, eta ondoren erantzunak niri helarazi zizkidaten.

Ariketa hau egin ahal izateko eta ikasleei pizgarri eta gertuko suerta dakiekeen oinarri bat eskaintzearen, emakumeek idatzitako eta klasean landutako hainbat liburu eta pasarteak emango zaizkie. Hona hemen eskuragarri izan ditzaketen bi adibide. Bi euskarriak Arantxa Urretabizkaiaren *3 Mariak* nobelatik hartutako pasarteak dira. Hala ere, pasarte hauek lagungarri modura eskainiko zaizkie, baina muinean dagoen ideia nork bere istorio edo egoera sor dezan da. Bada, hona hemen proposatutako lagungarriak:

1. Euskarria: “Egia esan, ez nuen sekula santan amestu horrelako zahartzarorik [...] ez zitzaidan burutik pasatzen halakorik posible zenik [...] Gorrirentzat bizitza dibertigarria da, pizgarri josia eta argi horrek kutsatzen du bere ingurunea. Ez da bakarrik bizirik egoteak berez dakarren poza, beste zerbait da, poza bera baino akuilagarriagoa” (81).
2. Euskarria: “Semeak ez zuen arrazoirik bizitza berri bati ekiteko zaharregia nintzela esan zuenean. Argi dago urteek ez dutela guztia baldintzatzen, adin berekoak baikara hiru Mariak. Handiren aurpegia etorri zitzaidan gogora hori pentsatu nuenean, aurpegi makilatu hura eta lakak gogortutako ile belztua” (121).

Ikasgelan jarduera hau proposatzeko, testuinguratze lana egin zen. Hasteko, ikasleei euren burua pertsona zahar baten haragitan imajinatzea eskatu zitzaizkien -bide batez, ikasleei pasa zitzaizkien inkestan lortutako erantzunen arabera, zahartzaroa zer den eta noiz hasten den galderak erantzun oso anitzak izan zituen- eta klasea bitan banatu zen. Ikasgelaren ezkerreko aldeak bere burua zaharretxe batean bizitzen imajinatu behar zuen, eta beste erdia zahartzaroan izaera nahiko autonomoa duen pertsona bat izango zen. Egoera azalduta, nork bere bizileku eta bizimodua kontuan harturik, kanpoan/barruan zegoen lagun min bati gutun bat idatzi behar zion, lagun hori norbera bizi den tokira bizitzera joateko konbentzitzeko, edo aspaldiko adiskideari sinestarazteko une horretan duten bizimodua zahartzaroan izan zitekeen hoberena dela. Ariketa hau egin ahal izateko, hona hemen ikasleei emandako premisak, esan bezala, bi egoera desberdin kontuan harturik:

1. Proposamena:

Idatz iezaiozu gutun bat zaharretxean bizi den zure lagun-minari, zure zahartzaroaren nondik norakoak ere azalduz.

2. Proposamena:

Zaharretxean bizi den pertsona izanik, erantzun iezaiozu bere betiko etxean bizi den aspaldiko adiskideari, zaharretxeko bizimodua nolakoa den azalduz.

Honez gain, ikasleek osatu behar duten fitxan bertan jarduera honetan bete beharreko irizpideak izango ditu ikusgai, eta, beraz, irakasleak zuzenketa egiten duenean kontuan hartuko diren ebaluazio-irizpideen jakitun izango dira. Hona hemen ikasleei eskaini zitzaizkien ebaluazio-irizpideen nondik norakoak:

3. Taula: Gutunaren ebaluazio-irizpideak

Ebaluazio-irizpideak

- Entregatze data bete du.
- Testuaren luzeera (8-10 lerro), egitura, ezaugarriak behar bezalakoak dira.
- Testuaren egitura behar bezalakoa da: hasierako eta bukaerako agurrak gehitu ditu.
- Eskakizuna erabat bete du.
- Laguna limurtzeko (konbentzitzeko) hainbat estrategia eraginkor erabili ditu.
- 3 testu-antolatzaile baino gehiago erabili ditu.
- Ortografia zaindu du eta akatsak zuzendu ditu.
- Sintaxia/perpauzak, erlatibozkoak, bukatu gabeko esaldiak, ordena, etab. zaindu ditu.
- Hiztegi egokia eta aberatsa erabili du.
- Puntuazioa zaindu du.

Jarduera honetan, ikasleek testuari egitura bat eman, laguna limurtzeko estrategia erabili, antolatzaileak erabiltzeaz eta abar luze batez harago, ikasleek zahartzaroaren gainean eraiki duten euren ikuspegia ikus daiteke. Kasu honetan, eta ikasleek ekoiztutako idazkiei so eginez, aurreikus

genitzakeen emaitzak ageri dira. Hone hemen ikasleek sortutako hainbat idazkiren adibideak, inongo moldaketarik egin gabe, egiazkotasunaren mesedetan:

1. Adibidea: “Zaharretxea oso ongi dago, zaitzaileak onak dira eta beti ondo tratatzen zaituzte. Gainera egiteko gauza asko daude, gaustatzen zaizun gauza guztiak egin ahal dituzu: bingoan jolastu, basurdeak ehizatu edo golfean jolastu eta gainera zure emazterekin etorri ahal zara”.
2. Adibidea: Orain dela 3 aste sartu ninduten zaharretxe batean eta hemen bikain bizi da eta luxu bat da, denak zutaz adi daude zaintzen dizute.
3. Adibidea: Azkenik, beste egunean artikulu batean irakurri nuen zahar-etxe batean denbora asko pasatzen duten pertsonen depresioa, antsietatea edo loditasuna izateko arriskua areagotzen dutela eta buruan erotu ere bukatzeko arriskua.
4. Adibidea: Bukatzeko, hor zure familia eta lagunak ikusteko aukera gutxi dituzu, bisitak ez direlako egun guztietan gertatzen. Kanpoan egongo bazina, nahi duzun egunetan bisitatu ahalko genuke zure familia eta lagunak.
5. Adibidea: Bukatzeko, gaur goizean irakurri dudak ikerketa batean, zaharretxeetan denbora luzez geratzen diren pertsonen buru arazoak (erokeria, antsietatea eta abar) izaten dituztela zion. Gainera, Gipuzkoako zaharretxeko pertsona batzuk hartu eta gero, horietako gehiengoari Alzheimerri pizten zaiela ondorioztatu dute.

Idazki hauetan garbi ikus daitekeenez, zahartzaroa gaixotasun mental zein fisikoekin, besteenganako mendekotasunarekin eta bakardadearekin lotzeko ohitura dago, orokorrean. Ikasleek eman zitzaizkien premisak bete zituzten, baina dela lehenengo premisaz arduratu zirenak zein bigarrena esleitu zitzaizkienak, biei besteekiko konpainiaren beharra, autonomia falta eta eritasunak bezalako kontzeptuak darie.


Ikasgelan proposatutako jardueren adibideekin amaitzeko, aurretik aipatutako eta ikasleek zahartzaroari buruz dituzten aurreiritziak ezagutzeko baliagarria izan den inkesta bat egin zen. Esan beharra dago hasieratik bertatik aurreikusten zela ikasleek gizartean hain erroturik egon diren emakumeen eta gizonen arteko arrakalak eta desorekak berragertzea, baina inkestako erantzunak oinarri harturik nabarmena da sustraitze hori deserrotzearen bidea hartu duela, behintzat ikasle hauengan. Hala ere, egun arte desorekaturik zegoen balantza horrek emakumearen alde ez, baina zenbaitetan gizonen kontra egin duela nolabait, izan ere, orain arte emakumeei esleitzen zitzaizkien aurreiritzi eta estereotipo negatibo horiek presente daude, baina gizonezkoen kasuan zifrak altuagoak dira emakumeenetan baino. Esan bezala, eta ikasleek bete behar zuten inkestaren sarbide moduan, hasieran gaiarekin loturiko galdera nahiko zabalak egin ziren, eta inkestak aurrera egin ahala galderak

gero eta zehaztasun handiagokoak izan ziren. Esate baterako, eta adibide errealak ekartzearren, hona hemen inkestaren hasieran planteatu zen galdera:

1. Irudia: Zahartzaroari buruzko inkesta

Entzun al duzu inoiz 'gerontologia' hitza?

21 respuestas




Kasu honetan, espero zen bezala, ikasleen gehiengoak ez du sekula gerontologia hitza entzun. Hala ere, inkestaren hurrengo galderan pertsona zahar batekin harremanik ote duten galdetzen zaie, eta bertan %100ak baietz erantzun zuen, beraz, gai honetan badute zer esan.

2. Irudia: Zahartzaroari buruzko inkesta

Zein unetan hasten da pertsona bat 'zahar' izaten?

21 respuestas



Kasu honetan, esate baterako, inkestan dagoen beste galdera batekin batera (hots, "Zein adin-tartean esango zenuke dela pertsona bat autonomo?" galderarekin batera) argi geratzen da ikasleriaren gehiengoarentzat pertsona baten autonomia eta baldintza duinenak liratekeenak produktibitate ekonomikoarekin estuki lotzen dutela, eta ez dutela inondik inora zahartzaroa epealdi produktibo eta aberasgarritzat hartzen; are gehiago, oro har urteetan zehar lan egin izanaren eta


produktibitate hori eteteko eta atsedean hartzeko alditzat hartzen dute. Hala ere, behin honetan ere gizon zaharrei esleitzen dizkieten adjektiboak eta emakumeei esleitzen dizkietenak desberdinak dira.

Hala ere, eta oraindik emakumeen eta gizonen arteko arrakalak tokia duen arren, aitortu beharrekoa da ere inkestaren erantzunak hasieran espero zena baino parekoagoak direla.

3. Irudia: Zahartzaroari buruzko inkesta

Aukeratu itzazu emakume zahar batekin lotzen dituzun hitzak


21 respuestas



4. Irudia: Zahartzaroari buruzko inkesta

Orain, gizon zahar batekin lotzen dituzunak

21 respuestas



Inkestaren atal honetan, ikasleek zahartzaroarekiko dituzten emakume eta gizonenganako aurreiritziak ezagutzea espero zen. Datuei so egiten bazaie, aipagarriak dira hainbat datu. Oro har, inkestan hitz positiboek direnek lotura handiagoa dute, ikasleek ustez, emakumeekin gizonezkoekin baino. Esate baterako, *heriotza*, *kirola* eta *indarra*, hitzak berdin lotzen dituzte gizon zein emakumeekin, baina, beha dezagun gainontzeko datuek zer dioten:

Sexualitatea (gizonetan %4,8 Vs. emakumeetan %14,3), *adiskidetasuna* (%38,1 Vs. %57,1), *hoztasun emozionala* (%33,3 Vs. %9,5), eta *zoriontasuna* (%61,9 Vs. %71,4) kontzeptuek emakumeen “alde” egiten dute, izan ere, positiboak diren horien kopurua altuagoa irizten duten emakumeen kasuan gizonezkoetan baino. Hala ere, badira urteetan zehar emakumeak familia esparruan esleiturik zamatzen duen rol zaintzailearen hondarrak (gizonezkoetan %42,9 eta emakumeetan 47,6%). Hala ere, zifra hauek espero baino parekatuagoak izan dira, behin honetan ere. Inkestaren datuei amaiera emateko, hona hemen ikasleei inkestan egin zitzaizen beste galdera bat:

“Emakumeen hilerokoaren agerpena/desagerpena: Pertsona baten zer fasekin lotuko zenituzte?”

Arlo teorikoan aipatu bezala, gizartean urteetan zehar emakumearen bizitza faseak aldaketa fisikoekin estuki loturik egon dira, eta zahartze prozesua gizonengan gutxinaka doan prozesu liteana den bitartean, emakumearengan hilerokoaren agerpena/desagerpenak eragin handia du, eta beraz, sarritan emakumeak bere bizitzaren erdialdean gertatzen den hilerokoaren galerak zahartzaroaren estereotipoak barneratzen ditu, oraindik bizitzaren erdia aurretik izanda ere. Hona hemen, gai honen harira, ikasleek emandako erantzun batzuk:

4. Taula: Ikasleen erantzunak

Emakumeen hilerokoaren agerpena/desagerpena: Pertsona baten zer fasekin lotuko zenituzte?
Helduaroa eta zahartzaroa, zahartzaroa, agerpena=nerabezaroa eta desagerpena=helduaroa, agerpena nerabezaroarekin eta desagerpena zahartzaroarekin, nerabezaroan agerpena eta zahartzaroan desagerpena, heldua zarenean, agerpena nerabezaroarekin lotzen dut eta desagerpena zaharra zarenean.

6. Ondorioak

Lan honen hasieran proposatutako hipotesi eta helburuak lortu diren aztertuko da atal honetan. Aurretik aipatuenez, landu beharreko eduki eta materialak ikasgela eta ikasleen beharrezan araberago alda daitezke, eta ondorioz atera daitezkeen konklusioak ere oso bestelakoak izan daitezke. Alde batetik, testuinguru sozio-ekonomiko, kultural eta linguistikoek, esate baterako, ikasgela bateko baldintzatzaile potentzialak izan daitezkeela. Bestetik, hasiera batean proposatutako jardueretan aurreikus zitezkeen erantzunak errealitatearekiko distantzia handia har dezaketela. Lan guztian zehar aipatu izanenez, hasiera batean euskal literaturarekiko, hizkuntzarekiko eta gerontologia feministaren gaiarekiko jakinmin arina izango zuten ikasleak espero ziren, baina jarduerak proposatu ahala eta gaia landu ahala aurreikuspenek bestelako bidea hartu dute, ikasleak zahartze prozesutik oso urrun egon arren inguruan badutelako bertatik oso gertu dauden pertsonak, eta ondorioz, honek distantziak asko murriztzazake.

Bestalde, hezkuntzan literatura gaiari ematen zaion guneari dagokionez, urteetan zehar curriculumak eskatu izan dituen literatura lantzeko moldeak nahiko mugatuak izan direla esan daiteke, dela eskaini izan zaion deboraren aldetik baita jorratu izan diren gaien aldetik. Hau da, gizona sortutako liburuak izan dira euskarri, eta honek ikasleen gogoetarako ahalmena muga dezake, molde bertsuko euskarriak izateak aniztasuna eta hausnarketa mugatzen baitu. Hau esanda, eta ikasleen gaitasun kritikoa ahalbidetu ahal izateko erabakigarria izan daiteke aniztasunari gune egokia ematea ahalbidetzen duen materialen berritze iraunkor eta sendoa.

Amaitzeko, hezkuntzaren egiturak zenbaitetan eduki ditzakeen mugak eta hoztasunak alde batera utzita, itxaropentsua da aniztasunaren alde egin nahi duten eta elkarlanean aritzen diren ikastetxe zein ikasleekin topo egitea, eta are gehiago, urteetan zehar gizartean derrigorren zamaz barneraturik egon diren estereotipo eta aurreiritziak atzean utzi nahi dituzten aho eta belarriek tinko eustea.

Erreferentziak

Alberdi, U (2009): *Aulki-jokoa*. Elkar.

CARDEÑOSO, O. (2011). Emakumea gizartearen ispiluan, itzala ala sormena?. Deustuko Unibertsitatea.

CASTAÑÓN, L. (2010). Simone de Beauvoir y la condición femenina. *Revista Melibea* Vol. 4, 67-80.

Cristina Segura Graíño (2001) *Feminismo y misoginia en la literatura española. Fuentes literarias para la Historia de las Mujeres*.

GARCÍA NAVARRO, M. (2003). *La vejez como materia literaria en la narrativa reciente de Doris Lessing*. Editorial Universidad de Almería.

Gil Otsagabia, A. (2023). *Emakumeen zahartzaroa*. Google formularioa. https://docs.google.com/forms/d/1wEVHDS6Te4qyUoQ_JraunnrlzRtq8B4Tl4xs8UoeiZs/edit#responses

Gómez Seibane, S (2022). *Cartas escritas por mujeres vascas en la primera mitad del siglo XIX*. Universidad de La Rioja.

HERNÁNDEZ ABAITUA, M. (2011). *Narrazio tailerra*. Erein.

Jaio, K (2009): *Musika airean*. Elkar.

MOLINA-LUQUE, F., CASADO, N., SANVICÉN-TORNÉ, P. (2018). Envejecimiento y género: Investigación y evaluación de programas. *Revista prisma social nº 21*, 44-74.

Moliner, M (1996). La mujer y la literatura. *Asparkia. Investigación Feminista*, 189-191. <https://www.e-revistas.uji.es/index.php/asparkia/article/view/1020>

Nafarroako Gobernua (2022). 67/2022 Foru Dekretua, ekainaren 22koa. 2022koa. 2022ko 155. Nafarroko Aldizkari Ofiziala. Eskuratuta: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2022/130/2>

San Juan Manso, E (2021). Emakumearen irudia Axularren Geron. *Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta*.

SOLÁNS GARCÍA, M. (2015). Representación del envejecimiento en la narrativa de Iris Murdoch. UNED-en doktoretza tesi argitaragabea.

Urretabizkaia, A (2012): *3 Mariak*. Erein